

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

344 zb.
www.getxo.eus

>> 2020ko Martxo

Zinegoak 2020

www.zinegoak.com

Bilboko Gaylesbitrans 17. Nazioarteko
Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia
17º Festival Internacional de Cine
y Artes Escénicas Gaylesbitrans de Bilbao
17th Bilbao International Gaylesbitrans
Film and Performing Arts Festival

ANTOLATZAILEA ORGANIZA

ASOCIACIÓN
ZINEGOAK
ELKARTEA

BABESLE OFIZIALEK PATROCINADORES OFICIALES

berdindu!



euskaltel

LAGUNTZAILEAK COLABORADORES



Bizkaia
Foru uduntza
diputazioa

Bilbao

Nabarmen tzeakoak

> Zinegoak Jaialdia ludotekara, RKEra eta Gazteleketara itzuliko da

- > @getxogazte-k badu irudi berria sare sozialetan
- > EuskarAbenturako lan eskaintzak

@getxogazte-k badu irudi berria sare sozialetan

Udaleko Gazteria Zerbitzuak abian jarri duen sare sozialetarako komunikazio-estrategiaren barruan, Whatsapp, Facebook, Twitter, Instagram eta Youtube sareetan duen irudia berri du. Hain zuzen ere, Gazteria sailak dituen zerbitzu guztien irudien lerroa jarraitu nahi izan da, hala nola Romoko gaztelekuarena, Algortako gaztelekuarena, Inklusio Zerbitzuarena eta abar. Aldi berean, irudi hauek guztiak barne hartzea bilatu nahi izan da, beti tonu alai eta baikorrean. Horretarako, sare sozialetan erraz identifikatzeko moduko sinbolo bat sortu da, gazteriarekin lotura zuzena duena. Getxo eta Gazte hitzen hasierako "g" horrekin jolastuz eta bizkarra emanda jarriz, tximeleta itxurako irudi bat sortu da, etengabeko aldaketan dagoen zerbitzu irudikatu nahian eta, baita ere, gaztaroan hain garrantzitsua den hegan egitearen ideiarekin lotu nahian: @getxogazte.



EuskarAbenturako lan eskaintzak

EuskarAbenturak, uztailean Euskal Herria zeharkatuko duen espedizioak hainbat lan eskaintza deitu ditu. Gazteen artean euskararen erabilera bultzatzeko eta beraien arteko sareak sortzeko Antzinako Quetzal Ibilbidean inspiratutako euskal abenturak uztailearen 1etik 31ra bitartean izango den espediziorako honako profil hauek kontratatu nahi ditu: begiraleak, erizaina, medikua, eta materialaren arduraduna/gidaria. Begiraleentzako kontratua hilekoa izango da, eta gainontzeko kasuetarako, hilabetekoa edo hamabostekoa. Eskararak aurkezteko epea: martxoaren 15ean amaituko da. Informazioa: <https://euskarabentura.eus/eu/category/berriak/>

BEKAK SARIAK

* **"British Council Aptis" 80 beka**, 18 urtetik gorako langabeen enplegarritasuna hobetzeko. Bakoitzak 79 eta 93 euro bitarteko balioa izango du, aukeratutako British Council Aptis titularen bertsioren arabera. Martxoaren 31ra arte egongo da aukera eskaera egiteko. Informazio gehiago: <http://www.injuve.es/convocatorias/becas/becas-british-council-aptis-desempleados>

* **"Fundación Botín" Arte Plastikoetako 6 beka**, edozein nazionalitateko artistentzat, sorkuntza artistikoaren arloko proiektu pertsonalak prestatzeko, ikertzeko eta gauzatzeko (ez lan teorikoak). Bekaren iraupena 9 hilabetekoa da. Beka bakoitzaren zenbatekoa: 23.000€. Eskaera-epaia maiatzaren 8ra arte dago zabalik: <http://www.injuve.es/convocatorias/becas/becas-de-artes-plasticas-fundacion-botin>

* **Antonio Gala Fundazioaren 18 laguntza Sortzaile Gazteentzat 2020-2021**. 18 eta 30 urte bitarteko edozein nazionalitateko sortzaileen eta ikertzaileen lana pizteko eta sustatzeko. Eskaerak martxoaren 31ra arte bidali ahal izango dira. Informazio gehiago 957 487 395 telefonoan eta info@fundacionantoniogala.org posta elektronikoan.

Algortako Gaztelekuaren programazioa

Martxoa

Hilak 5, osteguna: EKINTZA: EMAKUMEAK
Hilak 6, ostirala: ASANBLADA: APIRILAKO PROGRAMAZIOA
Hilak 8, igandea: TAILERRA: ARROSAK
Hilak 10, asteartea: EKINTZA: BINGOA
Hilak 12, osteguna: SUKALDARITZA: GAZTA TARTA
Hilak 14, larunbata: IRTEERA: OBRATZAILEA
Hilak 17, asteartea: TAILERRA: BUZTINA
Hilak 21, larunbata: IRTEERA: ESCAPE ROOM
Hilak 22, igandea: EKINTZA: LABURMETRAIAK: ZINEGOA
Hilak 24, asteartea: TAILERRA: MUGIKORRARAKO FUNDAK
Hilak 26, osteguna: SUKALDARITZA: SANJACOBOAK
Hilak 28, larunbata: TXAPELKETA; FUTBOLIN
Hilak 31, asteartea: AGUR SIMON

Romoko Gaztelekuaren programazioa

Martxoa

Hilak 6, 13, 20 eta 27, ostirala: EKINTZA: IRRATI SAIOA
Hilak 7, larunbata: EKINTZA: EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA
Hilak 11, asteazkena: JOLASA: DUBBLE
Hilak 14, larunbata: MASTER CHEF: GOFREAK
Hilak 20, ostirala: LABURMETRAIAK: ZINEGOAK 2020
Hilak 25, asteazkena: ESKULANA: PAPIROFLEXIA
Hilak 28, larunbata: IRTEERA: ESCALADA DOCK 39



Martxoaren 17, 19, 20 eta 22an

Zinegoak Jaialdia ludotekara, RKEra eta Gaztelekuetara itzuliko da

Zinegoak, Hegoak elkarteak antolaturiko gaylesbotrans Nazioarteko Jaialdia, Getxora itzuliko da beste urte batez, Udaleko Gazteria Zerbitzuekin elkarlanean. Berrito ere, haur eta nerabeentzat egokitutako edukiak sartuko dira jaialdiak emango dituen lanetan. Hartara, aurtien ere, bi gaztelekuetan hainbat emanaldi eskainiko dira, baita ipuin kontalari baten saioa ere, Kukupraka Ludotekan. Halaber, emanaldi irekia Romo Kultur Etxera eramango da.

Kukupraka ludoteka

Martxoaren 17an, asteartea-ekin, 18:00etatik 19:00etara, ipuin kontalari saio bat izango da. Bertan, 7 eta 9 urte bitarteko bazkideek bakarrik parte hartu ahal izango dute.

Romo Kultur Etxea-RKE



Mi pequeño gran samurai

Martxoaren 19an, osteguna, 19:00etatik 20:30era, film labur hauek emango dira: XY (Islandia, 15'), Cocodrilo (Espainia,

4'), AD LIB (Euskadi, 7'), Jess (Costa Rica, Espainia eta Txekiar Errepublika, 10'), Rani (Pakistan, 14') eta La Mariachi (Mexiko, 8'). Publiko guztientzat.

Gazteleku GauEgun (Algorta)

Martxoaren 20an, ostirala, 18:00etatik 19:00etara, honako film hauek emango dira: Mi Pequeño Gran Samurai (Euskadi, 21'), XY (Islandia, 15'), Cocodrilo (Espainia, 4'), Dejarse crecer el cuerpo (Mexiko, 4') eta AD LIB (Euskadi, 7').

Gazteleku GureGune (Romo)

Martxoaren 22an, igandea, 18:00etatik 19:00etara, GauEgun gaztelekuan eskainitako film berberak emango dira. Soilik 11 eta 17 urte bitartekoentzat.

"Udalekuak 2020": eskabideak online eta identifikazio digitalarekin soilik

Udalekuak 2020 kanpainarako eskabideak aurtien online baino ezin izango dira aurkeztu, Foru Aldundiaren www.ebizkaia.eus egoitza elektronikoen bidez. Hori dela eta, eskabidea egin ahal izateko, beharrezkoa da aurretik identifikazio elektronikoko bitartekoren bat izatea, hau da, Izenperena (Bak eta, BakQ), NAN digitala edo beste ziurtagiri digital bat.

Horrela, paperean edo online bidezko sinadura elektronikorik gabe aurkeztea desagertu da betiko. Horregatik, familia interesatuei gomendatzen diete identifikazio elektronikoko bide bat edo sinadura elektronikoa eskatzea, izena emateko epea martxoaren erdialdean irekiko baita. Horretarako, foru Aldundiak www.ebizkaia.eus webgunean eman beharreko urratsei buruzko gida bat eskaintzen du. Identifikazio digitala lortu ondoren, udalekuetarako izenematea aipatutako Aldundiaren egoitza elektronikoen egin beharko dute familiek. Urtero, 5.600 bat familia bizkaitarrek 7 eta 13 urte bitarteko seme-alaben izenak ematen dituzte Udalekuak kanpainan.



18 ETA 30 URTE ARTEKO GAZTEENTZAKO
 PARA JÓVENES DE 18 A 30 AÑOS

Zure proiektua azaltzeko hitzordua eskatu gazteria@getxo.eus helbidera idatziz

Pide cita para explicarnos tu proyecto escribiendo a gazteria@getxo.eus